

MALKOEN GAINETIK AURRERA

Antton Alberdi

Elgoibar, 12 urte

Kroaziako Dubrovnik hiritik kilometro gutxitara. Zerua beltz. Sudur eta masail arteko haran txiki horretatik batera doaz malkoak eta oroimenean zulo beltz ikaragarri bat sumatzen dut. Nire familiaren oroitzapen goibela. Baina kontua da hemen nagoela, eserita, pentsakor. Tiro eta bonba hotsak gelditu berriak dira.

Orain dela hilabete eta erdi hasi zen guztia, guztioi bihotza zartatu zitzaigun zarata izugarri haiek entzun zirenean. Bat-batean gorritasunak bereganatu zuen hortzea eta jendea zarata eta garrasika hasi zen. Ez nekien hura zer izan zitekeen, baina besteen aurpegiengatik laster ohartu nintzen zerbait larria zela. Familia guztia aztoratuta zegoen eta eskutik heldu eta korrika irten ginen norabide garbirik gabe, kale ilun haietan barrena.

Noizbait hiritik urrundu ginenean, txabolatxo batean sartu ginen. Banekien ikusten ari ginena ez zela txantxetakoa, baina aitak ez larritzeko, antzerki bat zela esan zidan, eta nahikoa luzea gainera. Munduko aktore guztiak etorri zirela guri sorpresatxo bat ematera. Liluraturik geratu nintzen, artista haiek guztiak gu poztera etorri zirelakoan.

Orduan leihora hurbildu eta txaloka hasi nintzen, oso ondo egiten baitzuten antzezlanak. Baina berehala amak eskutik heldu eta leihotik urrundu ninduen.

Hiri guztia tankez, jeepez eta soldaduz beterik zegoen. Izugarria. Eta airean hagazkinak zebiltzan bonbak botatzen. Ikusgarria. Ikuskizun bete-betea zen. Miresgarria.

Momentu hartan atea jo zuten. Amak eskutik heldu eta ohe azpira sartu ginen biok, berak ni bere gorputzaz babesten ninduelarik. Aita zutik gelditu zen, eta atea ireki zuen. Atarian zirenek aitari heldu eta kanpora aterarazi zuten, eta txabola miatzen hasi ziren. Mahai azpiak arakatu zituzten, baita altzariak ere; eta azkenik ohera etorri ziren.

Begi batzuk ikusi nituen iluntasunean argi eginez eta hauek zeuden lekutik beso bat luzatu, amari heldu eta hau ere, aita bezala, kanpora eramane zuten. Ni ez ninduten ikusi. Atea irekita zegoen eta guztia ikusten nuen. Aita, antzerkiarekin liluratuta bezala, txaloka hasi zen; ni ere bai orduan. Momentu horretan loratu zitzaidan ordutik honako azken irribarrea. Bat-batean aitak txalotzeari utzi eta behatza ahora eramane zuen isiltzeko keinua eginez. Antzerkia ikusteko isiltasuna eskatzen zuela pentsatu nuen, baina ez.

Gertatzen ari zena ez zen antzerkia, errealitate gordina baizik. Berehalakoan konturatu nintzen egiaz: aitari muturreko bat eman zioten eta odol jarioa zerion sudurretik. Ama larritasunak jota ikusi nuen. Irteteko keinua egin nuen baina atea itxi zuten.

Isiltasun luze baten ondoren tiro zarata izugarri batzuk entzun nituen; aitaren keinuaz oroitzuz, hala ere, isilik gelditu nintzen.

Ondorengo bi ordu luze haietan erabateko isiltasuna nagusitu zen inguruaz, eta kanpora ateratzean, hantxe ikusi nituen zerraldo nire gurasoak.

Ama eta aita afusilatu zizkidaten. Zer egin? Ordubete egon nintzen nigarrez, baina momentu hartan konturatu nintzen zerbait egin behar nuela. Ahal zena batu ondoren, baso aldera abiatu nintzen.

Eta hemen nago. Bizitzeko gogoia gailendu zait malkoen gainetik, eta seguru nago, oso seguru, lortuko dudala aurrera egitea. Lortu behar dut!